

getxoBerri

/ Nabarmentzekoak

- > Basque Segurtasun Foroak 40 ordezkari inguru bildu ditu BiscayTikEn segurtasunari buruz hitz egiteko (2. or.)
- > "America forever: The final refrito", umorea Goyo Jiménezekin (3. or.)
- > Udalak Bolueko hezeguneko hegazti-faunari buruzko monografia argitaratu du, balio ekologiko handia duela erakusteko (4. or.)



* Antonio Molero eta Pepe Viyuela "El barbero de Picasso"-n (3. or.)

Antzerkia. **Getxo Eszena Irekia**. Hilak 15, 20:00h, Muxikebarrin, "Lohi Gorria", Ekoma Teatrorerkin. 10 euro.

A-GENDA

XXX. Herrien Jaialdia. Hilak 16, larunbata, 21:00h, Andra Mariko pilotalekuan, The Enschede Spöllers and Daansers (Holanda) eta Itxas Argia Dantza Taldea.

Beste jarduketa batzuek gain, berdeguneen, lorategien eta zuhaitzen berriztatzea, eta tenis eta padelerako eraikin berriaren proiektuaren idazketa daude

2,6 milioi euro baino gehiago Getxoko auzoetako eta Getxo Kirolak azpiegituretako inbertsioak bultzatzeko

Getxoko Udalak bi kreditu gehigarri onetsi zituen pasa den astean, guztira **2.663.000 eurotik** gorako balioa dutenak. Kreditu horiek udal-gerakinaren kargura finantzatu dira, eta Getxoko auzoetako eta Getxo Kirolak azpiegiturekin lotutako hainbat inbertsiora bideratu dira. Puntu horiek aurrera atera ziren EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bildu alderdien aldeko botoekin. PP eta Elkarrekin Podemos abstentitu egin ziren.



Bestalde, milioi bat eurotik gorako kreditu gehigarria onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak kale-garbitzeko eta hondakin-bilketako aurreko kontratuari buruz emandako epaia betearazteko. Neurri horrek aukera ematen du ebazpen judizial horren ondoriozko ordainketari aurre egiteko, bere garaian kontratuaren prezioen berrikuspenera kalkulatzeari buruz zegoen desadostasunari dagokionez. Puntu hori aurrera atera zen EAJ-PNV, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-EP alderdien aldeko botoekin eta PP eta EH Bilduren abstentzioekin.

PPk hauxe esan zuen: "Bitxia da kontratua behin eta berriz hautsi duen enpresa batek aldeko epaia lortzea, baina kontratua EH Bildurekin hitzartu zen, eta horrek ezin zuen ezer onik ekarri". Bestalde, EH Bilduk galdetu zuen ea "nork ordainduko dituen interesen 369.000 euroak; bada, getxotar guztiek ordainduko dute". Elkarrekin Podemosek plegu argiagoko eskatu zituen etorkizunerako, eta Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak ziurtatu zuenez, "egoera hori alde aurretik aurreikusi genuen, aurreko

1,9 milioi euro baino gehiago Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuen Arloko inbertsioak finantzatzeko. Besteak beste:

- Instalazio mekanikoak hobetzea: igogailuak eta arrapalak
- Lorategiak eta berdeguneak berriztatzea eta zenbait eremutako zuhaitzia berriztatu eta birjartzea
- Energia-efizientzia hobetzeko lanak egitea, hornidura eta estolderia berritzea, eta espaloiak jarri eta asfaltatzea
- Bidegorriak hobetzea
- Aire zabalean ariketa egiteko eremu publikoetako hiri-altzariak berritzea
- Biolehortze-sistema hobetzea
- Edukiontzia eta edukiontzi marroietarako sarraila elektronikoak erostea
- Konposterako poltsen bi makina berri jartzea
- Garbigertu bat eskuratzea
- Emisio Gutxiko Eremuetako sarbide-kontrola eta seinaleztapena ezartzea

751.500 euro inguru Getxo Kirolak inbertsioak egiteko, besteak beste:

- Kirol-kantxaren estalkia egikaritzeko proiektua handitzea
- Proiektu hauek idaztea:
 - Herri-kirolak Andra Marin
 - Belar naturala kendu eta belar artifiziala jartzea
 - Tenis eta padelerako eraikin berria
- Herrian itsas-kirolekin zerikusia duten jarduerak egiteko inbertsioak
- Fadura, frontoietako eta Andra Marirako auto-babeserako planen eguneraketa
- Kiroldegietako konponketa arruntak
- Fadura saneamendu-sarea berritzea

ekitaldietan hornidurak sartuz, balizko aurkako epai baten aurrean erantzun arduratsua bermatzeko. Interes publikoak azkenerraino defendatzeko zorroztasun-, aurreikuspen- eta erantzukizun-irizpideekin kudeatu da".

Beste gai batzuk

Gainera, osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen La Terraza udal-erakinaren ustiapenaren zerbitzua daraman aldi baterako enpresa-elkarrearen kontratua indargabetzeko prozedura hastea, hainbat hilabete-tako kanona ordaintzeko betebeharra ez betetzeagatik eta etengabeko itxieragatik.

Lan-arloan, udaleko langileen 2026ko ordainsarien %1,5eko igoera onetsi zen, baita 4.000 euroko kreditu gehigarria ere, udal-talde politikoentzako esleipenaren %2,5eko igoera finantzatzeko.

Era berean, 30.000 euro gehiago bideratu dira Seriflaris kongresura, diseinuaren eta sormenaren industrien ingurukoa dena. Kongresu hori Muxikebarrin egingo da, maiatzaren 15ean eta 16an.

Mozioak

Lekukotasun-izaerarekin, ez-betearazlea, mozio bakar bat onartu zen, EH-Bilduk aurkeztutakoa, Getxoko auzo guztietan urte osoan zehar kultur programazio egonkorra, doakoa eta deszentralizatua eta askotarikoa diseinatu eta abian jartzeko, kalean garatzeko eta adin guztiei zuzenduta. Jendearen eskarien eta galderen txandan, hainbat pertsonak hartu zuten parte, eta, besteak beste, lorezaintzaren, Salsiduko arrapalen, Portu Zaharreko aparkalekuen eta segurtasunaren inguruan dituzten kezkek azaldu zituzten.



MAIATZAK 7 OSTEGUNA

Ipuinaren irakurketa eta tailerra. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Mila koloretako logela", Oihane Goikoetxearekin.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Colectivo Neguren "Negu hurbilak". 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Erakusketa. Algortako Batzoki Tabernan, Alberto Zebalosen pintura erakusketa. Ekainaren 15era arte.

MAIATZAK 8 OSTIRALA

Kontzertu solidarioa. ¡Dáale un mordisco a la vida!, minbiziaren ikerketaren alde. 19:00etan, SEI Europa Ikastetxean, Smileren emanaldia. Sarrera: 20 euro. (Biobizkaia Osasun Ikerketako Institutuko Immunopatologia arloa bideratuko da). Informazioa: <https://labur.eus/fuvtssv>

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte). Ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten pertsonen bilera. Gaia: "Era de noche y llovía".

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "El barbero de Picasso", Antonio Molero eta Pepe Viyuelarekin. 18 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Bruno Dumontaren "El imperio" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Bertsu afaria. 21:00etan, Algortako Azebarri Kultur Elkartearen, Nerea Ibarzabal eta Jon Maia bertsolariarekin, ALBEK antolatuta. Prezioa 20 euro (15 euro ikasleentzat). Izen-ematea: albegetxo@gamil.com / 605 704 385.

Bertan behera Migratzaileen Ezohizko Erregularizazioari buruzko informazio saioa, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) 10:00etan aurreikusitakoa.

MAIATZAK 9 LARUNBATA

Ipar Martxa. 10:00etan irteera Algortako batzokitik, Getxon barrena ibiltzeko. Beharrezkoa da parte-hartzea baieztatzea (hilarren 10a baino lehen) nw.itxartu@gmail.com helbidean. Antolatzailea: Itxartu.

Zaporeak Eguna. 12:00etatik aurrera, Tiki Toki Zentroan, ekitaldiaren irekiera, abesti ofizialaren aurkezpena, kalejirak, erakusketak, bideoak... 13:30ean bertsoak eta, ondoren, herri bazkaria. 17:00etan erromeria eta, 20:00etan, festaren amaiera eta lekukoa hurrengo erakunde antolatzaileara pasatzea. Antolatzailea: Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkarte. www.zaporeak.eus

"Star Wars" jardunaldia. 16:30etik 20:30era, Romo Kultur Etxean, mahai-jolas tematikoen ludoteka eta "Star Wars" jarduerak. Antolatzaileak: Kimera eta Abaco elkarteak.

Umeen dantzaldia. 17:15etan, Malakate parkean hasita, kalejira kiroldegiraino eta, ondoren, haurrentzako dantza taldeen erakustaldia aparkalekuan. Antolatzailea: Itxas Argia Dantza Taldea.

Getxo Eszena Klean. Clown eta Magia. 18:00etan, Areetako Geltokiko plazan, "Gota", Txema Muñozekin. **Antzerkia.** 19:30ean, Santa Eugenia plazan, "La llegada", Koilara Teatrotarekin.

Kontzertu solidarioa. 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokian, "Gospel Bilbao" abesbatzaren emanaldia. Solidaridad Internacional Trinitariaren alde.

Dantza plaza. 19:30ean, Malakate plazan, erromeria herriko dantza taldeekin.

Umerezko ikuskizuna. 20:00etan, Muxikebarrin, "America forever: The final refrito", Goyo Jiménezekin. 22 euro.

MAIATZAK 10 IGANDEA

Haur ikuskizuna. 16:30ean eta 19:00etan, Muxikebarrin, "Golazen 12". 8 euro.

Zinematik. 12:00etan, Muxikebarrin, "Oilaskoerbi eta marmotaren sekretua". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarrin aurrealdean, Ontario taldearen emanaldia.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "El secreto del herrero". Adin guztientzat. 2,50 euro.

MAIATZAK 11 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Luces y sombras del apagón eléctrico". Hizlaria: Aitor Urresti González (EHUko ingeniari-irizako doktorea). Antolatzailea: Sinope Kultur Elkarte. <https://sinopeblog.wordpress.com/>

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "El Comercio Justo y las Finanzas Éticas. Impacto en el medio ambiente, equidad de género y empoderamiento de la mujer", Oiko Credit, Finanzas Éticas elkarte eta Kidendaren eskutik. Antolatzailea: Udala.

MAIATZAK 13 ASTEAZKENA

Aurkezpen literarioa. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Instantes poéticamente impredecibles" liburuen aurkezpena (gaztelaraz), Txabi Anuzita egilearen eskutik.

MAIATZAK 14 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Paul Thomas Andersonen "Una batalla tras otra" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

MAIATZAK 15 OSTIRALA

Antzerkia. Getxo Eszena Irekia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Lohi Gorria" (euskaraz), Ekoma Teatrotarekin. 10 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Marta Gómez eta Paula Iglesiasen "Llámame sinsorga". 7 urtetik aurrera. 3,50 euro.

MAIATZAK 16 LARUNBATA

XXIX. Jardunaldi Botanikoak. 09:00etatik 13:00etara, landareak biltzeko irteera. Aldai Patonatotik. Arratsaldean, sailkapena.

Storytime for babies. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Under the sea" (ingelesez). 3-7 urte. Izen ematea doan: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Getxo Eszena Klean. Dantza eta zirkua. 18:30ean, Areetako Geltokiko plazan, "Soul project".

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Dysphoria" (gaztelaraz), Histrion Teatrotarekin. 8 euro.

Kontzertua. "Organo & Polyphonia II. zikloa". 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokian, Ondarreta Abesbatza eta Pedro Guallar (organo jotzailea). Zuzendaria: Iñaki Moreno. Antolatzailea: Merklin Organoaren Lagunen Elkarte.

XXX. Herrien Jaialdia. 21:00etan, Andra Mariko frontoian, "The Enschede Spöllers and Daansers" (Holanda) eta Itxas Argia Dantza Taldearen dantzaldia.

MAIATZAK 17 IGANDEA

XXIX. Jardunaldi botanikoak. 11:00etatik 14:30etara, San Nikolas plazan.

Zinematik. 12:00etan, Muxikebarrin, "Bob Esponja, una aventura pirata". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarrin aurrean, Gildas taldearen emanaldia.

Haur antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Agur, Peter Pan" (euskaraz), Yarleku Teatrotarekin. 6 euro.

Eskola Bideak-en oinezko esperientziei helduko zaie berriro ikastetxeetan

Hilabete honetan, maiatzean, jarriko dira martxan berriz ere Eskola Bideak programaren oinezko esperientziak herriko ikastetxeetan. Oraingo honetan, ekimena Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei zuzenduta egongo da batez ere, eta honako helburu hauek ditu: proiektua ezagutaraztea, ikastetxera oinez joatea sustatzea eta ikasleek ibilbide horiek ikas-kideekin egin ditzaten sustatzea, heldurik gabe.

Ikastetxe bakoitzak egun jakin bat izango du esperientzia hau egiteko. Egun hori eskolara sartzeko ordutegian bakarrik izango da, goizez.

Era berean, gogorarazi nahi da esperientzia horietan par-



te hartzeak aukera ematen duela eskolara oinez joateko talde autonomoak sortzea errazten duen ekimen batean parte hartzen hasteko.

Parte hartu nahi duten ikasleek gaitutako bideen bidez eman beharko dute izena. Horretarako, Ingurumen Aretorekin ere jarri ahal izango dira harremanetan (info@ingurumenaretoagetxo.eus). Bertan, izena emateko eta edozein zalantza argitzeko la-

guntza eskainiko da.

Bestalde, parte-hartzaileak lagundu nahi dituzten boluntarioei dei egiten zaie (taldearen dinamikan esku hartu gabe).

Horrela, ikasleen artean ohitura osasungarriak, jasangarriak eta autonomoak bultzatzen jarraitzen da.

Argiak Fibromialgiagatik

Areetako kaia eta udalerriko igogailu publikoak urdinez argizatuko dira maiatzaren 11ko eta 12ko gauetan. Arrazoia Fibromialgiaren eta Neke Kronikoaren Sindromearen Munduko Eguna ospatzea izango da.

Diru-laguntzak onartuta Bizarra Lepoan, Hiruka, ALBE y Egizurentzat

Euskararen erabilera gizarteratzen jarraitze aldera, Bizarra Lepoan, Hiruka, ALBE eta Egizu entitateentzako urteko diru laguntzak onartu ditu Udalak, 2028ra indarrean sinatutako hitzarmenen barruan. Hitzarmenetan entitateek dituzten helburu, neurri eta ekintzak zehazten dira, ESEPEk, Erabilera Sustatzeko Getxoko Udal Planarekin bat datozenak.

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak 86.940 euro jasoko

ditu, besteak beste, Bapirukeren barruan, udako, neguko eta udaberriko koloniak eta *Jostaldiak euskaraz* antolatzeke baita Gehitu Kultura (40 elkartek sinatuta) eta Gehitu Kirola (44 elkartek sinatuta) programak dinamizatzeko ere.

Hiruka kooperatibak 67.833 euroko subentzioa jasoko du aldizkaria (urtean 11 ale euskaraz) eta atari digitala (astean 10-20 albistekin) argitaratzeko gastuak ordaintzen laguntzeko.

ALBEk, 54.600 euroekin, *Getxo Bertsoz Bertso* eramango du aurrera, besteak beste, Abra Saria, Eskolatik Plazara, Balkoitik Balkoira, Bertso Jaialdi Mundiala, Hitzaren Dantza, Albe Gala eta mota desberdineko saioekin.

Azkenik, Egizu elkarteak 44.100 euro jasoko ditu, batez ere, euskara ikasten ari direnen artean euskara sustatzeko (Berbalaguna, kultur jarduerak, SENDI, Gazte Saltsa Berbodromoa...).



Basque Segurtasun Foroak 40 ordezkari inguru bildu ditu BiscayTIken segurtasunari buruz hitz egiteko

BiscayTIK Fundazioak Getxon duen guneak Basque Segurtasun Foroaren lurralde-bilera hartu zuen joan den asteazkenean, Bizkaian. Bertan, lurraldeko eragile instituzionalek, sozialek, ekonomikoek eta kiroletakoek estatuari, segurtasunari eta etorkizuneko erronkei buruz duten ikuspegia eman zuten, ikuspegi integral batetik. Bertara-

tutakoek gai hauek jorratu zituzten: administrazioen eta eragileen arteko lankidetzak, egungo eta etorkizuneko segurtasun erronken aurrean erantzun bateratua hobetzeko, larrialdien kudeaketa, klima aldaketaren inpaktua, herritarren segurtasuna, ziberdelinkuentzia, emakumeen aurkako indarkeria eta drogen trafikoa eta kontsumoa.



Antonio Molero eta Pepe Viyuela “El barbero de Picasso” antzezlanean

Ostiral honetan, maiatzaren 8an, 20:00etan, Antonio Molero, Pepe Viyuela, Mar Calvok eta Juan Carlos Talaverak *El barbero de Picasso* antzeztuko dute Muxikebarrin. Antzezlanea Borja Ortiz de Gondra getxotarrak idatzi du, eta Pablo Picassoren eta Eugenio Arias ile-apaintzailearen arteko benetako adiskidetasuna du inspirazio iturri. Gerra Zibilaren ondoren erbesteratua da hura ere. Komedia honek elkarriketa zo-

rrotzak zabaltzen ditu, eta, algarartearen, oroimenari, harrotasunari eta elkarri ulertzeko zailtasunari aurre egiten diete, ahotsa altxatu gabe. Ariasek Vallaurisen duen ile-apaindegia da agertokia, “*Espainia galdu baten zati anarkiko*” bihurtzen dena. Bizarginak eta margolariak irudimenezko aberri bat sortzen dute, non beraiek izan daitezkeen, garai hartako Frantziako eta Espainiako kide ez izatearen sentimendutik urrun. Sarrera: 18 euro.



“America forever: The final refrito”, umorea Goyo Jiménezekin

Goyo Jiménez umoristak *América Forever: The final refrito* aurkeztuko du larunbatean, hilak 9, 20:00etatik aurrera, Muxikebarrin, AEBetako kulturari buruzko bere bakarrizketarik onenen azken bilduma gisa sortutako ikuskizuna.

Proposamen honetan, *Aiguantulinamerika* trilogia eduki berriekin, gogoetekin eta estilo zorrotzarekin uztartzen du.

90 minutuz, Estatu Batuetako idiosinkrasia —zinema, gizarte, ohiturak— umore absurdu eta kritikoz aztertzen du, Espainiako errealitatearekin alderatuz. Berrikusi AEBen irudia. Superheroi eta hanburgesa ezinezkoen parke tematiko bat bezala AEBetan, munduaren gainerako ikuspegiarekin kontrastatuz.

Sarrerak 22 euro balio du.

Ontario laukotearen energia “Kristalezko kioskoan”

Rafa Gutierrez buru duen Ontario rock & roll laukote getxotarrak kontzertua eskainiko du igande honetan, hilak 10, 13:30etik aurrera, Muxikebarrin aurrean, *Kristalezko Kioskoaren* programazioaren barruan. Zuzeneko kementsuagatik ezagunak, beren abestiak eta rock klasikoaren bertsioak joko dituzte.



Clown, magia eta antzerkia Areetako Geltokiko plazan eta Santa Eugenia

Areetako Geltokiko plazan, larunbatean, hilak 9, 18:30ean, Txema Muñoz artista katalanaren Gota clown eta magia muntaia izango da, Getxo Eszena Kalean programaren barruan. 19:30ean, Santa Eugenia plazan, Koirala Teatrok *La llegada* antzeztuko du, bitxia, ustekabekoa eta desberdina ospatzen duen ikuskizuna.



Getxok lehen aldiz parte hartuko du Circo a Escena zirkuituan

Getxok lehen aldiz parte hartuko du Red Eszenak garatutako Circo a Escena zirkuituan (Espainiako Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Titularitate Publikoko Jaialdien Sarea). Horretarako, maiatzetik azarora, bost ikuskizun programatuko ditu, Areetako Geltokiko plazan eta Muxikebarrin taularatuko direnak.



Musika, korapiloak eta bigarren aukerak: iritsi da “Go! azen 12” fenomeno

Basakabiren espiritua igande honetan, maiatzak 10, iritsiko da Getxora, *Go! azen 12* musika-ikuskizun berriarekin. Muxikebarrin erritmoz beteriko bi emanaldi izango dira (16:30ean eta 19:00etan), eta EITBko telesail arrakastatsuko protagonistek “*bigarren aukeren*” istorio bat partekatuko dute zuzenean. Egungo euskal taldeen abestien eta koreografia bizien artean, ikusleek elkarbizitzaren erronkek eta interpreteen talentuak markatutako bilbe batez gozatuko dute. Ezinbesteko hitzordua euskaraz, familia osoak abestu eta dantza egin dezan, orain arteko denboraldirik zirrargarrienaren erritmoan. Sarrera: 8 euro.



Itxartu Taldeak 50 urte ospatzen ditu dantzan, tradizioa eta bihotza uztartuz

Itxartu Taldea bere 50. urteurrena ospatzen ari da aurten, 1976an sortu zenetik euskal kulturari eskainitako mende erdia oroitzuz. Ospakizunak joan den asteburuan hasi ziren Algortan, euskal dantzak, anaitasun bazkaria eta Salteko (Girona) Castellaren partaidetza bereziarekin. Ekitaldian, omenaldia egin zitzaion Iñaki Zarraori eta Arantza Garmendiari, eta azpimarratzekoa da biek egindako lana eta gaur egun 380 bazkide baino gehiago dituen taldeari egindako entrega. 2026an hainbat jarduera egingo dituzte, eta horiek iragartzen joango dira.

Udalak Bolueko hezeguneko hegazti-faunari buruzko monografia argitaratu du, balio ekologiko handia duela erakusteko

Udaleko Ingurumen Unitateak Bolueko hezeguneko hegazti-faunari buruz ondu duen monografia aurkeztu du aste honetan. Data-bilketa bat izan da Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin egin den lana, hezeguneko duen balio ekologiko handia agerian uzten duena. Monografikoak 14 urteko landa-lana eta azterketa zientifikoa biltzen ditu, espazio horretan dagoen hegazti-faunaren erradiografia zehatza eskainiz, eta horrek Boluek biodibertsiterako babesleku gisa duen zeregina berresten du, oso urbanizatu dagoen testuinguru batean. Era berean, monografian, Boluek ingurumen prestakuntzaren eta hezkuntzaren esparruan duen zeregina ere nabarmetzen da.



Azterlana honetan, 2007-2021 aldian hezeguneko Etengabeko Esfortzu Estazioan (EEE) harrapatu diren espezieen biologiari eta ekologiari buruzko hainbat alderdi aztertzen dira. Aztertutako aldian, 51 espezieko 3.000 ale baino gehiago eraztundu ziren, guztira. Gehien harrapatu-

tako espezieak lezkari arrunta, zetia urretxindorra, txantxangorri europarra eta martin arrantzalea, besteak beste. Hezeguneko funtsezko zeregina du: alde batetik, zingiretako hegazti txikiak (urrael eta urtegiatan bizi diren hegaztiak) ugaltzeko eremu garrantzitsua da; bestetik,

Boluek hegazti migratzaileak igartzeko eta elikatzeko gune gisa ere jotzen du, eta horrek hezeguneko balio ekologikoa indartzen du.

Ondorio garrantzitsuenen artean, azterlanak azpimarratzen du, tamaina txikia izan arren eta inguruen hirigintza-presioa handia izan arren, Boluek dibertsitate biologiko nabarmena duela, ondo kontserbatutako habitaten presentziari esker. Hala ere, mehatxuei buruz ere ohartarazten da, hala nola erregimen hidrikoaren aldaketari, espezie inbaditzaileen presentziari eta gizakiaren presioari buruz. Monografia doan deskarga daiteke esteka honetan: <https://labur.eus/qvmsiqss>

Botanika Jardunaldiak

Maiatzaren 16tik 21era XXIX. Botanika Jardunaldiak egingo dira, Getxoko Basozaleak Mikologia eta Botanika Elkarteak antolatuta. Larunbatean hasiko dira, hilak 16, 09:00etan, herrian eta inguruetan laginak hartzeko irteerarekin; arratsaldean sailkatu egingo dira, eta hurrengo egunean, igandean, hilak 17, erakusketa egingo da Algortako San Nikolas plazan, 11:00etatik 14:30era.

Hitzaldiak maiatzaren 19an eta 21ean izango dira, 19:30ean, Algortako Kultur Etxean, Villamonten. Lehenengoa, *Orquídeas silvestres de nuestro entorno* izenburukoak, Gorbeiaiko Bazterra Mikologia eta



Natura Elkarreko kide den Vicente Blanco Alvesek egingo du, eta bigarrenak, *Nuestros bosques autóctonos. Equilibrio y degradación* izenburukoak, Basozaleko eko Enri-

que Elexpuru izango du hizlari. Informazio gehiago: Elkartearen egoitzan (Karitate kalea 1, Algorta), astelehen eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30era. <http://www.basozaleak.com>



Anfibioentzako urmaela Ingurumen Aretoan

Getxoko hamaika ikastetxeetako ikasleek anfibioentzako urmael bat eraki dute aste honetan bertan Larrañazubiko Ingurumen Aretoan, Eskolako Agenda 2030 programaren barruan. Herritarrek bisita dezaketen urmaela hainbat espezieen presentzia errazteko diseinatuta dago, hala nola igelak, apoak edo uhandreak. Gainera, jardunaldi horretan ikasleek ingurumena hobetzeko beste ekintza batzuk egin zituzten: hondakinak garbitu, espezie inbaditzaileak ezabatu, habia-kutxak eta liztor asiarren tranpak jarri, besteak beste.

Tximeletei buruzko landa-tailerrak

Udal Ingurumeneko Unitateak eguneko eta gaueko tximeletei buruzko bi tailer antolatu ditu eta maiatzaren 16an, larunbata, emango dira, helduei zein haurrei zuzenduta. Eguneko tximeletak

aztertzeko eta ezagutzeko irteera 11:00etatik 14:00etara egingo da eta gaueko tailerra iluntzean egingo da. Bi jarduerak egiteko lekuak egun horretan egingo duen eguraldiaren arabera erabakiko dira. Bi tailerretan, hautemandako aleak sailkatu eta identifikatuko dira, eta haien biologiari, taxonomiari eta hainbat bitxikeriari buruzko xehetasunak azalduko dira. Irteeretan, sortzen diren Getxoko biodibertsitatearen beste alderdi batzuk ere landuko dira. Tailer horiek Fernando Jubete entomologo eta naturalista adituak emango ditu, BOLUE Ingurumen Ikerketak enpresako Xabi Buentearekin batera.

Tximeletak ezagutzeko tailerretara joateko, ezinbestekoa da alde aurretik izena ematea, posta elektronikoz bidez, ohiko helbide honetan: boluenatura@gmail.com, egin nahi den tailerra adieraziz (horieta-ko bat edo biak). Hotz egiten badu, arropa eroso eta berokia eramatea gomendatzen da. Gainera, euri-jasak badira, litekeena da jardunaldia bertan behera uztea.



Silvia Marce Snipe klaseko garaile berriz ere

Silvia Marcé (irudiaren eskuinaldean) Abrako Marítimo Itsas Klubeko (RCMA-RSC) estropadalariak irabazi du berriz ere Malagako badian hile honetako lehen asteburuan jokatu den belako Snipe klaseko Espainiako Txapelketa. Silviak Mahongo Itsas Klubeko Sara Franceschirekin batera nabigatu zuen, eta duela urtebete Valentzian lortutako titulua eskuratu dute berriz ere. Emakumezkoen sailkapen nagusiko lehen postuan amaitu zuten 9 punturekin, txapelketa bikain bat egin eta gero.

Raspas, txapelkunorde estatuko txapelketan

Raspas Arrauneko neskak bigarren tokian sailkatu dira Legutio-ko (Araba) urtegi-ko uretan pasatzen asteburuan jokatu zen Espainiako Arraun Olinpikoko Txapelketa Absolutuko domina-zerrendan. Raspasen ontziek hiru domina lortu zituzten, urrezko bi 4- eta 4x ontziekin eta zilarrezko bat lemazaindun 8koarekin.

Txapelketaren atal paralinpikoan, Raspaseko arraunlari Mario Lopezek brontzezko domina eskuratu zuen skiffean.

